

The background of the entire cover is a photograph showing the silhouette of a person from behind, holding a flaming torch. The person is standing against a bright, hazy sky, likely at sunset or sunrise, with the sun low on the horizon. The torch is held in the person's right hand, and the flame is bright and flickering. The overall mood is contemplative and symbolic.

liberalismoari buruzko hainbat egia deseroso

PATXI
LÓPEZ DE TEJADA
FLORES



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

patxi lópez de tejada flores

liberalismoari buruzko hainbat egia deseroso

aurkibidea

hitzaurrea

- 1.- Liberalismoak banakoaren hautuak arrazionalak direla suposatzen du, baina isuri eta baldintzapen asko tartean daude beti.
- 2.- Pertsonaren askatasun pribatu et publikorako mehatxurik handienak gaur egun ez datoz estatutik, korporazio teknologiko berrietatik baizik.
- 3.- Liberalismoak itunak berdinen arteko akordioak direla suposatzen du baina oso arraroa da aldeak berdinak izatea eta menpekotasunen edota baldintzapenen bat tartean ez egotea kontratu batean.
- 4.- Liberalek merkatuan interesak naturalki orekatzen direla uste dute baina oreka hori boteretsuenaren interesen arabera finkatu ohi da.
- 5.- Liberalismoak interes pribatuen uztartzeak eta elkartzeak interes publikoaren onuran jokatzeko duela uste du, baina ez da beti horrela.
- 6.- Heziketan, osasunean, etxebizitzan eta bizitza baldintzetan interbentzio sendo bat gabe ezin da aukera-berdintasunik izan.
- 7.- Liberalismoak botere politikoa beti abusatzeko joera edo tentazioa daukala salatzen du, baina ez du ikusi nahi berdin jokatzeko duela botere ekonomikoak.
- 8.- Zuzenbide penala eta zibila ez dira aski merkatuko abusuak kontrolatzeko, kontrol administratiboa beharrezkoa da ere bai.
- 9.- Abusu bat pairatu duena ez dago beti erreklamatzeko edo salerosketa ez errepikatzeko egoeran.
- 10.- Indibidualismoak mugak ditu, gizabanakoak ez dagoelako beti erabakiak egiteko moduan.
- 11.- Pribatua ezin da sakralizatu pribatuaren eta publikoaren arteko muga lausoa eta kulturala delako.
- 12.- Autorregulazioa ez da efektiboa.

gibel solas gisa

hitzaurrea

Liberalismoa, politikoa zein ekonomikoa, ideologiarik garrantzitsuena izan da gizakiaren historia modernoan, aurrerapen eta garapen handienak ekarri dituena, eta oraindik ekartzen jarraitzen duena. Ilustrazioak sortua, Iraultza Amerikarrarekin eta Frantsesarekin hasi zen hedatzen eta ordutik honetara igarotako berrehun urtetan historiako hiru lorpen nagusiak eragin ditu: demokrazia, giza eskubideak eta merkatu ekonomia, ongizate mailarik altuenak ahalbideratu dituztenak. Arrakasta itzel horren azpian errealdismoren eta idealismoren oreka on bat aurkitzen asmatu izana datza hein handi batean, baina jakina gizasemeek eratutako eraikin kontzeptual eta kultural guztiak bezala itzalak eta arrakalak ditu liberalismoak ere ideologia bezala.

Ideia pertsonaren gogotik jaiotzen da inguratzen, baldintzatzen eta determinatzen duen kanpoko errealitatea ulertzen saiatzeko eta interpretatzeko, eta ideiatik proiektura pausoa ematen denean hobera aldatzeko ere. Haatik ideiaren egokitzapena giroari eta errealitateari ez da inoiz perfektua izaten, errealitatea, mundua, geu ere, konplikatuegia da, korapilatsuegia, ausazkoegia eta aurreikusten zaila beti.

Ondoko testuan liberalismoaren dotrina nagusiaren ahulezia batzuk azalduko ditugu, zenbait puntu zeinetan ideologia liberala agian idealistegia den edo beti edo sinesten den maiztasunarekin betetzen edo ematen ez diren aurre suposatu batzuen gainean eratzen dituen planteamenduak.

Asko sinplifikatuz liberalismoa gizabanakoaren askatasuna errespetatzen duen ideologia bezala definitu izan da, baldintzarik gabe edo oso baldintza gutxirekin, ahalik eta gutxien (elkarbizitza baketsua ahalbideratzen duen solairu etikoa, besterik gabe), eta proposamen horrekin oso urrutira eraman du zibilizazioa, baina noizean behin errespetu hori gizasemearen jokaera arrazionalari buruzko gehiegizko fede edo idealizazio batean oinarritua egon da, edo pertsonak eskura ez dituen baliabideak izatean.

Jarraian harilkatzen diren kritikek halere ez dute erabateko aurkaratze bat osatu nahi, inolaz ere. Liberalismoa bizirik dago eta antza denez eta gauden munduaren egoera ikusita bizirik jarraituko du luzaro, araka dezakegun hodeiertzetik haratago eta, edonola ere, orain arte eta

azkeneko berrehun urte hauetan lurperatu nahi izan duten beste ideologia guztiak lurperatzen joan da bata bestearen atzean, haiek baino iraunkorragoa izatea frogatuz, eta bide luze horretan ezagutzen dugun garaiko mundua hein handi batean moldatuz.

Haatik ideien munduan ez dago eztabaidan ez dagoen enuntziaturik, nabarienak ere, eta gutxiago oraindik sistema ideologikoen kasuan, eraikitze-deseraikitze dialektika etengabe batean murgilduta baitaude hazteko era bakarra delako uneoro aldatzen den errealitate batean.

Are gehiago, zenbat eta hedatuagoa eta praktikan jarriagoa dagoen planteamendu ideologiko bat are eta kritikara esposatuagoa egongo da, eta eskarmentuak irakurri eta ikasi nahi dituenari oparitzen dizkion lezio emankorrak emateko eta loratzeko landatuagoa.

1.- Liberalismoak banakoaren hautuak arrazionalak direla suposatzen du, baina isuri eta baldintzapen asko tartean daude beti.

Liberalismoaren muina eta jatorria, ideia-indarra horrela esatearren, inposaketaren eta pribilegioaren errefusa da, gizakion berdintasunari eta askatasunari zor zaion errespetu ia absolutua aitortzea eta eskatzea hain zuzen ere. Horretaz, marxismoa, nazionalismoa eta bestelako ideologia garaikide ez bezala zera aldarrikatzen du liberalismoak, itun guztiak, pribatuaz zein publikoak, adostasun librean oinarritu behar direla eta ez inolako inposizioan edo behartzean.

Hori berealdiko ideia da, baina ideal batek osatzen du neurri handi batean, adostasun bat negoziatzean edo gauzatzean normalean aldeak ez daudelako egoera berdinean, ez daukate pareko negoziatzeko edo adosteko indarririk eta beharren aldetik ere posizioa ez da antzekoa izaten. Aldiz, ohikoa kontrakoa da, monopolioen eta oligopolioen kasuez aparte eguneroko kontratuetan (ia guztiok egunero hamarka kontratu egiten ditugu) aldeak baldintzatuta egotea, eta ia beti alde bat bestea baino baldintzatuagoa egotea.

Bestalde batetik, gaur egun deitzen dugun adostasun libre eta informatu bat adierazi ahal izateko kontratuaren edukiez, terminoez eta efektuez ezagutza sakon eta zabal bat izan beharra dago, eta hori egiazki oso gutxitan gertatzen da, ia inoiz ez esateko. Premiaz, beharraz, kalkuluak egiteko trebezia ezaz edota nagiaz, kontratuak aski garrantzi ekonomikorik ez duelako baldintzak eta efektuak ikasteko eta baloratzeko behar den denbora inbertitzeko moduan merezitzeko... ia inork inoiz adostasun libre eta informatuak ematen ditu egunero egiten dituen hamarka transakzioetan (gehienetan konturatzerako adostasuna emana dauka gehienetan).

Horrez gain, adostasun libre eta informatu bat suposatzeaz eta defendatzeaz gain liberalismoaren teorian akordioak gizabanakoen eta elkarte pribatuen aldetik hautu arrazionalen fruitu dira, uste edo suposizio horrek ondorio eta eragin franko dituelarik ('merkatu demokrazia' deiturikoaren mailan), baina ekonomistek eta psikologoek argitzen

joan direnez erosle edo kontratatzaile baten erabaki baten atzetik azterketarako ahalmenaren baldintzapen dezentez aparte isuri kognitibo ugari daude, eta horrekin batera emozioen eragina, oso maneigarriak direnak.

Beste askoren artean isuri kognitibo hauek identifikatu dituzte erabaki ekonomikoak hartzerakoan:

- a) Konfiantza gehiegi izatea norberaren jakintzan eta adimenean, arriskuak gutxiesteko joera eragiten duena.
- b) Kontrol ilusioa, kanpokoak eta askotan urrunak zaizkigun ekintza edo bilakaera nolabaiteko kontrolatzeko ahala duguneko ustea benetan gure kontroletik at erabat gertatzen edo gertatuko diren arren.
- c) Egiaztapen isuria, hau da, argibideak objetiboki baloratu beharrean aldez aurretik pentsatzen dugun zerbait baieztatzen duten datuak bakarrik onartzeko edo lehenesteko joera.
- d) Ainguraketa isuria, hau da, jaso dugun aurreneko informazioa zuzenagotzat jotzeko ohitura ezezta dezakeen geroztik jasotzen dugun argibideen gainetik.
- e) Autoritate falazia, pertsona nabarmenen edozein iritziei gehiegizko garrantzia emateko joera kontuan izan gabe esaten dutenaren zorrotasuna.
- f) Aureola efektua, hau da, kalitate positibo bat daukan pertsona edo erakunde batetik datorren guztia onartzeko joera.
- g) Imitazioa, tximuk bezala daukagun joera naturala tentsio egoeretan besteek egiten dutena pentsatu gabe imitatzeke.
- h) Deskontu hiperbolikoa, hau da, berehalako ordain txikiak onartzeko joera epe luzearako ordain handietan pentsatu gabe.
- i) Galerekiko izua, galerei irabaziei baino garrantzi askoz gehiago emateko joera alegia, irabazteko jokatzeari beharrean ez galtzeko jokatzeari eragiten duena.

Isuri kognitibo guzti horiek (eta beste askok aipatu ez ditugunak), emozioek, baldintzapenak eta behar egoerek ez dute ezeztatzen hautu arrazionalen posibilitatea, baina bai zalantzan jarri egiten dutela kasu guztietan pertsonen jokaera erabat arrazionala eta librea izanaren gainean liberalismo klasikoak eraiki izan zuen mitoa eta suposizioa.

2.- Pertsonaren askatasun pribatu et publikorako mehatxurik handienak gaur egun ez datoz estatutik, korporazio teknologiko berrietatik baizik.

Geroztik anarkismoak egingo zuen modu berean, liberalismoak arerio bat seinalatzen du zuzenean: estatua eta gobernua. Mentalitate hori ulertzeko gogoratu egin behar da liberalismoa sortu zenean, Ingalaterrako 1688ko Iraultza Lariatsuan, Estatu Batuetako 1775-1783ko Independentzia Gerran eta bertako errepublika eratzean eta 1789ko Iraultza Frantsesean, Antzinako Errejimeneko kasten eta pribilegioen sistemaren aurka egiteko eratua izan zen sentzibilitate politikoa izan zela, berdintasuna eta askatasun baloreak eta idealak gizarte libre eta ireki batean defendatzen zituenak, eta beste aldean Antzinako Errejimena sostengatzen zutenak estatu monarkikoak zirela garai haietan.

Ondoko bilakaera historikoan liberalek zera interpretatu zuten, estatuak eta gobernuak modernitatean beren ekintza-eremu naturala etengabe zabaltzeko joera agertzen zutela, irudimenezko eta ustezko edonolako beharrak aitzakiatzat hartuta eta jendearen bizitza pribatu espontaneoaren kaltean. Eskarmentu eta ikuspegi horretatik, eta gizabanakoaren askatasuna babesteko asmoz, botere publikoen intrusio gehiegizkotik eta zenbaitetan itogarritik askatu nahian liberalismoak printzipio bat enuntziatu zuen: estatuak ez du zertan egin behar gizabanakoak edota elkarte pribatuak berez egin dezaketena.

Historian zehar plazaratutako idazki liberalak irakurtzen orri horietan estatuarekiko seta jarraikor bat badagoela ematen du, beti badagoela nonbait gobernuaren gehiegizko interbentzioaren beldurraren zantzua eta horren aurka defendatzeko premia. Horren ondorioz, diskurtso liberalen kezka nagusia betidanik eta gaur ere gobernuaren hipertrofiarekiko eta gainjokatzearekiko kontra egitea bilakatu da, beraien aburuz hori gertatzen ari denean salatzea eta gertatuko dela iragartzen dutenean horrek dakartzan arriskuak salatzea hain zuzen ere.

Kezka horri garrantzi eta gaurkotasun izpi bat kendu gabe, gaur egun egoera bestelakoa dela aitortu beharra dago, eta estatuak eta botere publikoak aparte beste iturri desberdinetatik

ere etortzen hasi delako pertsonen bizitza pribatuan intromisioa, korporazio teknologiko erraldoietatik alegia.

Gaurko egunean askoz litekeena da datu pribatuak enpresa teknologiko batek eskuratzea (jakin gabeen ere, edo ustezko inplizitua den adostasun batez, edo eragiketa bat -salerosketa telematikoa bat kasu- egiteagatik bakarrik) estatu batek edo gobernu batek hori egitea baino, eta oso ohikoa da korporazio pribatuek datu pribatu horiek bereganatu ondoren erabilera ez onartuak egitea, adibidez beste bati saltzea datu horien jabeari ezer ordaindu gabe eta baimena ere eskatu gabe,.

Are gehiago, pertsonen portaeraren baimenik gabeko jazarpenak, azterketak eta erregistroak, bizitza pribatuko elementu eta datu askoren pilatze eta zirkulatzeak (argazkiak, kokapenak, sarean bilaketen historialak, harremanak eta harremanen kontaktu datuak – telefono zenbakiak, helbideak, posta elektronikoko helbideak, lanpostuak...-) enpresa teknologiko horiek egiten dituzte gehienetan, ez estatu polizialek.

Egia da fenomeno hori berri samarra dela, baina horrek ez dio horren liberalen isiltasunari esangura kentzen.

Fondoan ez da liberalek aldeztu aurretik deskribatu izan zuten prozesu baten adierazpena besterik gertatzen, botere orok (publikoa zein pribatua) usteltzeko joera duela eta botere absolutuak erabat usteltzeko joera agertzen duela (Lord Acton, 1887) hain zuzen ere, baina gakoa zera da, nork kontrolatu edo mugatu behar ote du erraldoi teknologikoek pilatzen ari diren gehiegizko botere hori? Estatuak eta gobernuak, gaitz askoren erroa liberalen ustean?

Egia esan estatu eta gobernu gehienek ez daukate dagoeneko internet kontrolatzeko ahalmenik, autoritate legalik ezta behar beste baliabiderik, eta nazioarteko erakundeek egin behar dute edo egin beharko lukete. Estatu bera baina boteretsuagoak eta intrusiboagoak eratu diren egitura eta erakunde batzuek egin behar dute?

Hor badirudi liberalismoa ataka batean trabatuta geratzen dela, botere gehiegi metatzen duten elkarte pribatuak kontrolatzeko ez dirudielako beste modurik dagoenik botere gehiegi (behar beste) metatzen duten erakunde publikoak eratzea baino.

3.- Liberalismoak itunak berdinen arteko akordioak direla suposatzen du baina oso arraroa da aldeak berdinak izatea eta menpekotasunen edota baldintzapenen bat tartean ez egotea kontratu batean.

Kontratuaren mito liberal klasikoa esan bezala ituntzen duten aldeak berdinak direla suposatzen du, baina hori ez da ohikoa, izan ere antzekotasun hori oso arraroa da. Posizioen ustezko berdintasun horrek suposatzen du lehenik aldeek beste aukerak izatea, askotan gertatzen ez dena, bigarrenik transakzioaren terminoei eta efektuei buruz argibide eta ezagutza pareko maila izatea, kontsumo harremanetan esate baterako ia inoiz ematen ez dena, alde bat profesionala ohi delako eta bestea profanoa ohi delako, eta hirugarrenik jatorrizko egoerak kontratatzeraz ez behartzea edo baldintzatzea alderen bat.

Adibidez, langabezia egoera larri batean miseria gorrian egon daitezken langileek ia edozein lan kontratua onartzeko prest egongo dira baldintzak abusuzkoak izan arren edota gehiegizko arriskuak hartzea suposatu arren. Edo bizitza zibilizatu bat izateko ezinbestekoak diren zerbitzuak, indarra, ura, janaria, besteak beste monopolio batek eskaintzen dituenan herritarrek edozein baldintzetan erostera behartuta egongo dira beharrezkoak direlako.

Muturreko behar egoera horren aurrean liberalismoaren erantzuna zera da, ahal den guztietan estatuak bermatu egin behar duela lehia egotea, monopolioak eta oligopolioak ere deuseztatuz⁹, eta erantzun zuzena da, eta egia da muturreko egoera horiek gaur egungo gizarte garatu mendebaldarretan ez direla ohikoak, baina bata ez du bestea kentzen, itunak adostean aldeak normalean ez daude egoera berdinean.

Ekonomiaren modernizazioak produktu eta zerbitzuen estandarizazioa ekarri du, eta merkataritza prozesuen homogeneousazioa eta sinplifikazioa, prozesu horrek baldintzen orokortzea eta predeterminazioa eragin dituelarik. Sarritan kontsumitzaileari produktua edota zerbitzua baldintza jakin batzuetan eskaintzen zaio ezer negoziatzeko aukerarik gabe, hartu edo utzi formula batean, eta horrek baldintzak saltzaileak bakarrik ezartzen dituela esan nahi ohi du, eta saltzaile hori enpresa bat denean autoritate administratiboek ez baldin

dute kontrolatzen baldintza horien egokitasun legala eta eroslearen gutxieneko eskubideak errespetatzea ez du inork egingo (epaileek izan ezik, baina normalean *ex post* kontrol batean askotan kontsumitzaileek eskatzeko baliabideak ez dituztena).

Beste era batera esanda, liberalek eskatzen duten bezala estatua transakzio pribatu guztien aurrean abstenituko balitz multinazionalak, enpresa handiek eta bereziki enpresa txikiek kontsumitzaileak zapalduko lituzkete geroako erreklamazio prozedura judizialen kostua negozioko kontingentzia bezala onartuz kontuetan.

Jakina ustezko alde ahularen defentsan botere publikoek transakzio pribatuetan egiten dituzten esku hartzeak maiz traketsak direla, aurreiritzietan eta demagogian oinarrituta erlazioen azterketa objektiboan baino, eta batzuetan kaltegarriak ere izatera iristen direla, baina horrek egia izanik ez zu ezeztatzen esku hartze horren beharra prezeski liberalek gobernuari esleitzen dioten eginkizun bakarrenetako bat bete ahal izateko, hau da, herritarren askatasuna eta eskubideak babestea botere abusuak erreprimituz.

4.- Liberalek merkatuan interesak naturalki orekatzen direla uste dute baina oreka hori boteretsuenaren interesen arabera finkatu ohi da.

Ideologia guztiek sinesmen sistemak dira ideia arrazionalen sistemak diren bezainbeste, eta liberalismoen sinesmenen artean badago bat beste guztien gainetik nagusitzen dena: merkatuko indarren elkarrekintza libre eta naturalak oreka bat sortzen duela eta oreka hori berez egokia eta zuzena izaten dela.

Sinesmen horri heldu baino lehen argitu behar den aurreneko gauza zera da, merkatua edo merkatuak ez direla errealitatea, ez dira mundua, ez dira natura: erakundeak dira, erabat artifizialak direnak eta gizakiok zenbait arau eratzearen bidez sortuak. Merkatuan ez dago ezer naturalik, ez dago ezer espontaneorik, ezer objektiborik. Izan ere merkatuak egiatan ez dira existitzen gure burutik at, ez daude inon, sorkuntza mental hutsak baitira mugak, gobernuak, aberriak edo artea bezala. Guk geuk asmatu genituen eta gu joango garenean gurekin desagertuko dira.

Hori esanda, merkatuan gauzatzen den interes pribatuen arteko elkarrekintzan, beste inoren eraginik gabe, bizitzan beti gertatzen den gauza bera gertatzen da, boteretsua ahula zapaltzen duela alegia, besterik gabe. Indartsuak ez duela txikia hiltzen edo erabat itotzen itxura arrazoiak tarteko eta askotan harremanari jarraipen eta egonkortasun bat eman nahi diolako?, bai. Horrek oreka bat sortzen duela?, jakina. Sarritan handiak adimentsua denez esplotazio gordina baino kolaborazio formulak bilatzen eta ezartzen dituela?, bai. Horrek ere orekak sortzen dituela? Bai. Orduan?

Orduan era horretan eta baldintzak zuzentzeko kanpotik inoren interbentziorik gabe merkatuan naturalki sortzen den oreka boteretsuenen interesen arabera oreka bat da, indartsuenen edo azkarrenen interesen fruitua.

Hori berez ez du zertan kaltegarria edo bidegabea izan beharrik, baina berez ez du zertan egokia edo zuzena izan behar ere ez. Modu horretan funtzionatzen jarraituko du merkatuak, baina hori ez da kontua, kontua zera da, artifizialki sortutako erakundea den merkatuko

baldintzek zuzenak izan behar dutela, gizakiok sortua delako eta beraz sorkuntza morala izan behar du, sortzaileon ardura baita morala izan dadin.

Sarritan merkatua oihana dirudi, baina guk artifiziaiki sortu dugun oihan bat da eta berez merkatuko legea ezin du oihanaren legea izan, boteretsuaren legea alegia, gizartearen baloreen arabera botere publikoek ezartzen duten legea baizik. Beste era batera esanda, gobernu batek bidezko baldintzak eta orekak operadore pribatuei inposatzeko egin ditzakeen interbentzio guztiak berez eta erabat zilegiak dira gobernu berak (gizartearen izenean) sortu duelako eta sortzen duelako merkatu hori.

Jakina horrek ez duela esan nahi esku hartze guztiak beti egokiak, beharrezkoak, efektiboak edo lagungarriak direnik, izan ere, maiz ez dira izaten. Horrek sinpleki esan nahi du liberalen aurreiritzien aurka gobernuen merkatuetan interbentzioa ez dela antinaturala, experimental edo arrotza, logikoa eta derrigorrezkoa baizik, merkatua sortu zuten arauen multzoa betetzen direla ziurtatzeko beste ezertarako ez bada ere.

5.- Liberalismoak interes pribatuen uztartzeak eta elkartzeak interes publikoaren onuran jokatzeko duela uste du, baina ez da beti horrela.

Liberalismoaren aurkikuntza kontzeptualik nagusia zera da, gizabanakoek eta elkarte pribatuak bere interesen alde egitean eta zorrotz eta zuhur jokatzeko portaera buruko bat ager dezaketela, bai, baina aldi berean, nahi gabe ere, nahi ez dutenean ere, interes orokor publikoaren alde egiten dutela, egiten duten lana denon onerako izaten delako eta beraiek aberastean guztiok, gizarte osoa, aberastu egin dutelako.

Alexander Popek olerkariak bertso pare bikain batean adierazi zuen 1733an bere *Essay on man (Epistle 3)* lanean:

Thus God and nature link'd the general frame

and bade self-love and social be the same

Hein handi batean hori egia da, eta liberalismoaren eta kapitalismoaren bidea hartu duten gizartearen garapen ekonomiko, sozial eta kulturali begiratu bat besterik ez da eman behar printzipio hori zenbaiteraino frogatuta geratu den ziurtatzeko, ikusi nahi ez duten itsu bolondresak salbu, jakina.

Halere ondorio edo printzipio horrek mugak ditu ere bai eta agerikoak dira. Jarduera pribatu batek aberasteko asmoz produktu berri bat asma, ekoizti eta plazaratu dezake, modu horretan kontsumitzaileek edota beste ekoizleek eskura dauzkaten aukerak eta posibilitateak zabalduz eta areagotuz eta komunitatea oro har aberastuz, baina prozesuan kalteak eragin dizkioke ingurugiroari eta hori denon kaltean doa, gizarte osoari gaitz egiten baitio.

Era berean negozio edo ekimen pribatuak beste gizakien lan esplotazioaren bidez gauzatzen direnean azkeneko emaitza denontzat aberasgarria izan daitekeen arren prozesuan kaltetutako langileek beren bizkarrean eraman behar izaten dute gehiegizko zama.

Araudia bat behar da beraz, baldintza legalak ezartzen dituen ekimen pribatu kaltegarriak debekatzeko eta ekiditeko, eta gizartearen ordezkatzeko duen botere publikoek (estatu

demokratikoetan horrela izan beharko luke behintzat) daukate legeria hori eztabaidatzeko (bereziki ekimen pribatua itotzeraino iris ez dadin neurtze aldera), onartzeko, aplikatzeko eta betearazteko ardura.

Ondorioz, egia izanik gizakion jarduera pribatu gehienek gizarte osoa garatzen eta aberasten dutela, hori jarduera horiek bidezko eta zentzuzko marko zehatz baten barruan egiten direnean bakarrik suertatzen da egia izatea, eta marko hori une historiko bakoitzean komunitateak dauzkan baloreek, beharrek eta lehentasunek ematen dute eta estatuko erakunde publikoei dagokie mugak definitzea eta legez eta errepresioz indartzea. Hamaika aldiz frogatua izan da historian zehar elkarte pribatuek ez direla onak beraien jardunei beren kasa mugak marratzen eta betearazten, eta ez da inor bezain altruista, argia, orojakilea edo perspektiba aski zabala eta objektiboa izateko gauza norberaren jardunaren helduera baloratzeko orduan interes propioaren eta orokorraren elkarrekintza zuzen baloratzeko eta epaitzeko moduan, gizakiok elkartuta edota kanpotik aholkatuta gaudenean ere ez garelako gure lanaren gaineko behar beste kritikoak, objektiboak eta epe luzerako interes orokorra kontuan hartzen duen ikuspegi bat izateko gaiak.

6.- Heziketan, osasunean, etxebizitzan eta bizitza baldintzetan interbentzio sendo bat gabe ezin da aukera-berdintasunik izan.

Esan dugun bezala, merkatuak gizakiok sortutako erakunde legalak dira, eta legala den edozer bezala mugak jartzean dautza. Etxebizitzakoa merkatu bat da besteak beste debekatuta dagoelako edonon eraikitzea ingurugiroa babesteko, eta eraikin berak babesteko arrazoiak direla medio, eta edonola eraikitzea pertsonen segurtasun arrazoiak direla medio. Osasun zerbitzuak merkatu bat dira besteak beste debekatuta dagoelako edonork edonola gaixo bat edo zauritu bat erditze bat artatzea teknikoki kualifikatuta egon gabe.

Esan dugun bezala, merkatuak sorkuntza legal artifizialak eta interbentzio publikoaren emaitza diren unetik haien funtzionamenduan gobernuaren esku hartzea ez da arrotza ezta salbuespenezkoa naturala baizik.

Orain, gizarte sistema liberalek eta kapitalistek askatasunaren eta jabetza pribatua babesteagatik (finean gauza bera direna) prezio bat ordaindu behar dute, hau da, desberdintasun ekonomikoak, eta ekimenen pribatuaren garatzearen albo ondorioak diren arrakastatsuek eta dirudunek prezioak gora etengabe bultzatzea behartsuek jarrai ezin dezaketen erritmo batean.

Dinamika horretan, eta zeresanik ez kapitalismoak ziklikoki sartzen den depresio boladetan, badago beti biztanlegoaren zati bat laguntzarik gabe atzean eta baztertuta geratuko litzatekeena, etxebizitzarik gabe, heziketarik gabe, osasun zerbitzurik gabe eta bizi baldintza ez duinetan. Eta larriagoa dena, marjinalitate hori seme-alabei kutsatuko liekete baztertuek, modu horretan liberalismoak argi eta garbi defendatzen duen hastapenetako bat galarazten, aukeren berdintasuna.

Pobrezia beraz, eta etxebizitzarako eta kalitatezko heziketa eta osasun zerbitzuetarako sarbidea galtzea, egiturazko arrisku egonkor bat da biztanleriaren zati batentzat beti gizarte libreetan, eta kapitalismoak zerbait badaki egiturazko arriskuak kudeatzea da, funtsezko erakunde baten bidez: aseguruak, arrisku pertsonalak arrisku kolektibo bihurtuz diluitu egiten dituzten kontratuak.

Balore kontua da, zuzentzat jotzen baldin bada gizarteko pertsona batzuk, umeak barne, baztertuta egotea, ez da ezer egin behar, baina liberal gehienak ez dira horrela eta aukeren berdintasuna printzipio kontua dela pentsatzen dute.

Inor atzean gelditu ez dadin zerbait egin beharra dagoela uste dutenen artean halere desadostasunak badaude eman beharreko erantzunaz eta erantzunaren izaeraz: batzuen ustez erantzuna gizabanakoen eta elkarte pribatuen elkartasunetik etorri behar du, karitatetik, eragile pribatuek gauzak beti hobeto, merkeago eta eraginkorrago egiten dituztelako iritzian edo aurreiritzian; beste batzuen ustez, aldiz, eskuhartze publikoa ezinbestekoa da egoera horiek denon ardura delako.

Azkenean balore kontua da hemen ere bai, baita eraginkortasun kontua ere. Bizitza baldintza duinak espektatiba bat izan beharrean eskubide bat badela onartzen badugu, eta eskubide horren efektiboa izan behar duela eta ondorioz bermatuta egon behar dela onartzen badugu, ez dago beste erantzunik ardura publikoa kontsideratzeaz besterik, eta gobernuaren zeregina dela.

7.- Liberalismoak botere politikoa beti abusatzeko joera edo tentazioa daukala salatzen du, baina ez du ikusi nahi berdin jokatzeko duela botere ekonomikoak.

Liberaletan gehiegizko botereak beti arrisku bat suposatzen duela ondorioztatzen eta aldarrikatzen dute, eta kezka oinarrituta da (are gehiago lehian diharduten horrenbeste ideologia totalitarioen artean), baina kezka hori ez dute berdin agertzen gehiegizko boteretzeko pribatua denean.

Egia da Estatu Batuetan enpresen monopolioen, oligopolioen, kartelen, posizio menderatzaileraren abusuen eta lehiaren aurkako bestelako praktiken aurkako legeria eta irizpide sorta sendo bat garatu dituztela, liberaletan eragina izan zena eta geroztik mundu osora zabaltzen dena, eta kapitalismoaren joko garbia eta ekimen pribatuaren eta berrikuntzaren posibilitateak babestu dituztena, baina hala eta guztiz ere korporazio pribatuak handiegia edo boteretsuegiak edota eragin handiegikoak (botere publikoen gainean ere, hori baita lobbyen zeregina) bilakatzen direnean liberalen aldetik salaketa ez ohi datorrela horren fite eta horren ozen estatuaren eragina hazten denean berehala plazaratzen dutena baino.

Jarrera horren atzetik beti badabil liberalismoaren publikoa denarekiko susmoa, edota elkarte pribatuak dena hobeto egiten dutela suposatzen duen aurreiritzi positiboa (askotan horrela izaten da, baina ez beti), baina oso jarrera kaltegarria da, gobernuak eta administrazioak estatu demokratikoetan beti daudelako miazte publikoaren menpean (oposizio alderdi politikoena, prentsa independenterena, epaileena, herriarena) baina enpresa pribatuak ez, ez neurri berean behintzat.

Botere kontzentrazioak kaltegarriak eta arriskutsuak baldin badira, eta badira, kasu guztietan dira, alde publikoan zein pribatuan.

8.- Zuzenbide penala eta zibila ez dira aski merkatuko abusuak kontrolatzeko, kontrol administratiboa beharrezkoa da ere bai.

Liberalet ez dituzte onartzen kontsumo zuzenbidearen eta produktu eta zerbitzuen kontrol administratiboaren pertinentzia eta beharra. Milton Friedman-ek oso gogor argudiatzen zuen kontsumo kontrol publikoaren aurka, produktu eta zerbitzuen garestitzea eta eskasia kontrol horri leporatzen ziolarik, baita merkatuko lehia garbian ez beharrezko distortsioak eta bidegabekeriak eragitea ere.

Haatik oposizioa zaharragoa da, Albert Venn Dicey legegizon britainiarrak adibidez Erresuma Batuan 1899an janariaren eta edarien kalitatea bermatzeko eta beren salerosketa kontrolatzeko onartu ziren bi lege, *Food or Drink Act* eta *Sale of Food and Drugs Act*, tinko kritikatu zuen bere ustean legeria horrek zera suposatzen zuelako, estatuak eta gobernuak kontsumo hautuak egiteko argiagoak eta aproposagoak zirela edozein herritar bere kabuz zena baino.

Pentsamendu horren jatorria liberalismoaren hastapen bat zegoen, ideologiaren ardatz bihurtu dena hasieratik gaur arte: estatuak ez du zertan egin behar gizabanakoak bere kasa egiteko gauza dena.

Hastapen hori egokia da, baina bere mugak dauzka, eta aurre suposatu eta premisa baten gainean eratzen da egiazkoa ez dena: kontsumitzaileak erosketa hautu bakoitza egitean erabaki arrazional bat egiteko ezagutza, eskarmentu, aukera sorta eta denbora adina daukala.

Egoera txarrean, kalitatezkoa ez den edo kaltegarria den (ingeniaritza kimikoaren eragina gaurko ekoizpen industrial eta nekazalean itzela da eta eragin onak zein txarrak dauzka, elikagaien segurtasuna bermatzen eta kontsumo produktuen ugalketa ahalbideratzen laguntzen duen bitartean bestaldetik gehigarri kimikoek osasunerako kaltegarri izatea frogatu izan da askotan) produktu bat kontsumitzeagatik pertsona batek bizitza gal dezake, erostean efektuak edo defektuak ezagutzeko inolako aukerarik izan ez duena, eta bera desagertu ondoren bere orde ez erreklamatzeko agian inor egongo ez delarik.

Finantza produktu edo zerbitzu oker bat jaso duenak ausaz daukan diru guztia edo gehiena gal dezake eta oso garestia izaten den justizia eskatzeko baliabiderik gabe gera daiteke.

Egungo gizartearen eta kontsumoren konplexutasunak, ia inork ez dauka egunero erosten duenaren eta kontsumitzen duenaren jatorria, osagaiak, efektuak eta ondorioak edota albo ondorioak ezagutzeko behar beste gaitasuna, ez prestakuntza ez informazioa, eta beraz aurreneko premisa ezeztatuta gelditzen da: estatuak eta gobernuak merkaturatzen diren produktu eta zerbitzuen baldintzak arautu eta kontrolatu behar dituzte gizabanakoek ezta elkarte pribatu gehienek ezin dutelako egin, ez direlako gai eta hori egiteko behar direlako baliabideak ez dituztelako eskura.

Are gehiago, ekoizten eta saltzen diren produktuak (inportatzen direnak barne) eta zerbitzuak horren konplexuak bilakatu dira gaur egun ezen estatu eta gobernu gehienek ere dagoeneko ez diren arautzeko eta kontrolatzeko gauza, eta nazioz gaindikoa erakundeek hori egiteko ardura beren gain hartzen dituzten (gure kasuan Europar Batasuna) zeregin horretarako ahalmena daukaten bakarrak direlako.

Horrez gain, globalizazioaren garaian (bolada honetan bizi garen globalizazioaren krisialdian kontuan izanik ere) nazioarteko bidezko merkataritza ahalbideratzeko modu bakarra kontsumo autoritate publikoek (nazioartekoak behar denean) esportatzen eta inportatzen diren produktuek eta zerbitzuek gutxienean ingurumen, sozial eta kalitate betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela bermatzea da.

9.- Abusu bat pairatu duena ez dago beti erreklamatzeko edo salerosketa ez errepikatzeko egoeran.

Teoria liberalaren arabera gobernuak ez du zertan paternalista jokatu behar herritarrekin edota elkarte edo negozio txikiekin, estatuaren ardura eta eginkizun funtsezkoenetakoa zuzenbide estatua bermatzea, legeak (ahalik eta gutxien eta zuzenen hobe) betearaztea eta pertsonen eskubideak babestea, baina partikularrek erreklamatzeko dutenean bidegabekeria bat egin dela bindikatuz, ez prebentiboki inork eskatu edo salatu baino lehen.

Horrez gain liberalek merkatu demokraziaren funtzionamendua defendatzen dute: bere espektatibak betetzen ez duen zerbitzu edo produktu bat jasotzen duen kontsumitzaileak edo erosleak erosketa ez du errepikatuko, esate baterako, saltzailearen kalterako.

Teoria hori paperean egokia dirudi, baina eguneroko errealitatean bere horretan aplikatuta botere publikoek lege hauste dezente eta kaltetu ugari babesik gabe utziko lituzkete, erreklamatzeko paradarik ez dutelako: abokatu bat kontratatzeke diru aski ez dutelako, bidaiariak izanik bertan ez direlako geratzen erreklamazioa edo salaketa aurkezteko, erreklamatzeko antiekonomikoa suertatzen delako (jasoko daitekeen ordaina erreklamazioaren kostua gainditzen duenean), konformismoarengatik edo eskubideak erreklamatzeko kultura ezarengatik, korporazioek erreklamazioak desaktibatzeke erabiltzen dituzten jukutriengatik, bidegabekeria ezin delako frogatu, edo sinpleki erreklamazioa baloratzeko eta planteatzeko behar beste denborarik ez dutelako.

Beraz, justizia sistema eta zuzenbide estatua partikularren ekimenaren esku uzteak zuzengabekeriak eta arau-urratzeak toleratzea suposatzen du sarritan.

10.- Indibidualismoak mugak ditu, gizabanakoak ez dagoelako beti erabakiak egiteko moduan.

Liberalismoak gizabanakoan daukan fede ia absolutua (finean gizakiarengan fedea besterik ez dena) eta gizabanakoaren askatasunarekiko agertzen eta eskatzen duen errespetu ia absolutua miresgarriak dira, eta ezin du inork ukatu demokrazia liberala gizakiaren duintasuna gehien errespetatu duen sistema politikoa denik, baina fede eta errespetu hori gehiegizkoa izatera iris daiteke ere bai.

Izan ere, gizasemea ez da beti bere burua gobernatzeko gauza, ez dago beti hautu zentzudunak egiteko moduan ezta bere ongizateaz eta bizirauteaz arduratzeko moduan ere, eta hori denoi gertatzen zaigu umeak edo gazteegiak edo adinekoak garenean, gaixo gaudenean edo adikzio batek jota (drogena, alkoholismoa, ludopatia edo dena delakoa). Bizitza bera bezain errealak eta ohikoak diren egoera horietan besteen laguntza behar dugu ezin dugulako bakarrik aurrera egin, eta indibidualismoak eta liberalismoaren ekimen pribatuarekiko balorazioak ez dute kasu horietan ezertarako balio, elkartasuna eta zerbitzu publikoen kalitatea dira menpekotasun egoera duintasunez eramateko lagun dezaketen bakarrak.

11.- Pribatua ezin da sakralizatu pribatuaren eta publikoaren arteko muga lausoa eta kulturala delako.

Liberalismoaren uste finkatuan pribatua orokorrean onuragarria da gizartearen interes kolektiboentzat ere, eta publikoa orokorrean kaltegarria da gobernuek ez ohi dutelako onartzen beraien eginkizun-esparruaren mugak zeintzuk diren, eta behar baino gehiago interbenitzeko joera daukatelako.

Aitzitik publikoa eta pribatuaren arteko mugak ez dira beti definitzen errazak edo ikusgarriak. Tradizio anglo-saxoiko sistema legeetan ez da onartzen administrazio publikoek lege-errejimen berezi bat izatea, ezta jurisdikzio berezi bat ere, eta ondorioz estatu horietan zuzenbide administratiborik eta administratibo arloko jurisdikziorik ez dago.

Tradizio kontinentalean gobernuek eta administrazio publikoek merkataritza-elkarte pribatuak sortzen dituzte jarduera batzuk egiteko edo garatzeko, maiz betebeharrak administratiboetatik eta burokraziatik ihes egin nahian.

Elkarte pribatu askok, irabazi asmorik gabeko elkarteak tartean, printzipioz zeregin publikotzat har genitzakeenei ekiten diete, hala nola segurtasuna, justizia ematea (arbitroak), premiazko eta osasun zerbitzuak ematea eta abar luze bat, defentsa militarra ere batzuetan.

Zer da publikoa? Politikoa? Komunitate oso bati afektatzen diona? Alderdi politiko batek edo sindikatu batek edo komunikabide batek adibidez egiten dutena zer da?, publikoa ala pribatua?

Zer da pribatua? Orokorra ez dena? Erlijioa publikoa edo pribatua al da?

Ez du inork orain arte publikoa pribatutik bereizteko definizio edo identifikazio irizpide aproposik eskaintzen asmatu, harritzekoa suertatzen dena kontuan izanik bereizketa gizakiok asmatu ditugun kontzeptu mental horietako bat dela, errealitatean eta gure buruetatik at kanpoko munduan existitzen ez dena. Nork sakralizatzen du errealitatean existitzen ez dena eta ondo defini edo zehatz ezin daitekeena?, erlijioek egiten dute, eta liberalismoak ez luke inoiz erlijio bat bihurtzen onartu behar.

12.- Autorregulazioa ez da efektiboa.

Liberalismoaren adar batek, estatuaren eta gobernuaren ustezko gehiegizko eskuhartzea murrizteko asmoarekin beti, korporazioek edo sektore bakoitzeko enpresek autorregulatzeko gune legal bat izan behar dutela proposatzen dute, beren burua -eta pareek batak besteari- hobe kontrola omen dezaketela argudiatuz botere publikoen miazterik gabe.

Esperientziak aldiz kontrakoa frogatzen du, enpresa pribatuek orokorrean eta korporazio handiek bereziki ez dutela garbi jokatzeko interes orokorrak babestu behar dituztenean, bereziki horrek mozkinak moteltzea suposatzen duenean, azpijokoz baizik, ez publizitatearen bidez errealitatea apainduz (*dolus bonus*), zuzenean jendeari gezur hutsak esanez baizik, esaten dutenaren kontrakoa eginez, gobernuak eta parlamentuak lobbyen bidez maneiatuz, ikerketa eta txosten zientifikoen emaitza objektiboen hedapena oztopatuz eta faltsutuz, eta era guztietako estrategia sasi kriminalak (kriminalak ere zenbaitetan) erabiliz.

1930 hamarkadan nylon galtzerdiak asmatu egin zituzten, eta oso garestiak ziren zetazkoak oso azkar ordezkatu zituzten andre arrunten kajoietan. Lehen garai horietako galtzerdiak horren onak ziren ezen pare batekin aski izaten baitzen denboraldi bat baino gehiagorako. Hori ikusita Dupont korporazio kimiko amerikarrak (nylon galtzerdiak asmatu izan zuena) eta gainontzeko fabrikatzaileek kalitatea jaistearen erabaki zuten, zuntzaren zabalera 40 denierretik 15era jaitsiz, horrela produktua maizago narriagarria bihurtuz (eta jendeari maizago erostera behartuz), zaharkitze programatuak aurreneko kasu dokumentatua izan zena.

1980 hamarkadatik Estatu Batuetan hainbat epai judizialek frogatutzat eman dute tabako konpainiek hamarkada luzez bazekitela nikotina osasunerako kaltegarria zela eta minbizia eragiten zuela eta datu horiek kontsumitzaileei ezkutatu zizkietela. Are gehiago, frogatutzat ematen joan ziren besteak beste tabakoan gehigarriak sartu izan zituztela adiktiboagoa egiteko, publizitatea egin zutela erretzea osasungarria zela azalduz edo 'light' zigarroak normalak baino osasungarriagoak zirela iragarri hori faltsua zenean.

1960 hamarkadatik euri azidoak arazo larri ugari eragin zituen herrialde garatuetan, baso zabalak eta lakuak kutsatuz eta hondatuz. Euri azidoa beraien lantegiekin eta ekoizteko prozedurekin sortzen zuten enpresek kanpaina izugarri bat plazaratu zuten urte askoan

arazoa ezkutatzeko, ukatzeko, ikerketa galarazteko (Kanadan ikerketa laborategi bat desmuntatzera behartzera iritsiz ere), eta azkenik aitortzea beste erremediorik izan ez zutenean kontrola kuestionatuz, zera planteatuz, euri azidoa eragiten zuen kutsadura gelditzeak aldaketa teknologiko sakonak eskatzen zituela oso garestiak zirenak eta inbertsio horiek ekonomia hondatuko zutela. Era guztietako amarruz eta lobbyen lanaz behar zen legeria atzeratzen lortu zuten hogeita zazpi urtez, ebidentzia zientifikoa agertu zen 1963tik 1990raino, azken urte horretan Estatu Batuetan *Clean Air Act*-en (Aire garbiko legea) zuzenketa bat onartu zuten arte euri azidoa eragiten zuen poluzioa debekatzen zuena. Ordutik euri azidoa ia desagertu egin da, epe luzerako ondorioak naturan luzaro iraungo duten arren, kutsadura mota hori etetea industrian hartu behar izan ziren aldaketa teknologikoak oso merkeak izan ziren eta ekonomiari ez zitzaion ezer gertatu, hazten jarraitu zuen.

Gaurko egunean nonahi eta uneoro jan behar dugu *greenwashing* deitzen den propaganda mota, hau da, poluzio gehien sortzen dituzten korporazioek (petrolio-konpainiak, zentral terminoak eta nuklearrak mantentzen dituzten konpainia elektrikoak, eta enparauak) eta beraz aldaketa klimatikoan ardura gehien dauzkatenek plazaratzen duten publizitate jarraia ingurugiroaren alde eta energia garbiaren alde gehien egiten dutenak direla saltzen saiatuz.

Adibide gutxi batzuk jartzearen, beste askoren artean. Otsoa ardien zaindari izendatzea ez du ematen ideia ona denik.

gibel solas gisa

Jabetza pribaturik gabe askatasunik ez dago, eta askatasunik gabe bizitza duinik ez dago, ekuazioa sinplea da. Askatasuna aitzitik ez da gizakion egoera naturala ezta jatorrizkoa (Rousseau eta Roussearen jarraitzaileen fantasia guztiak direlarik ere), produktu kultural bat baizik, argi hitz egiteko estatus bat, legala eta ekonomikoa, lortzen zaila dena eta defendatzen zailagoa dena oraindik.

Jakina askatu nahi izatekotan norberak egin beharreko aurreneko lana bere buruarengandik askatzea dela, gauza gehiegiren jabe izateko grinatik eta kontsumismotik libratuz, baina hori beste gai bat da.

Liberalismo garaiko ideologia guztien aitona da eta garaiko ideologia guztien biloba, sortzen doazen idea, interpretazio eta planteamendu guztiak jasotzen duen arragoa beti beroa eta beri irekia, polisemikoa, anbigua, multiformea, aldakorra, beti zaharra eta beti gaztea, kapitalismoa bezala bere burua behin eta berriro errotik berrasmatzeko gauza den hidra bat.

Egia esan, gainontzeko garaiko korrante politikoak noizean behin sistema autonomoak eraikitzeke agertu duten nahia izan arren liberalismoari eginiko kritikak edo oharrak bezala uler daitezke, eta aurreko orrien asmoa hori bera da, metalari zepa pixka bat kentzea hain zuzen ere, txikia bada ere.

Izan ere ausaz etorkizunean zibilizazioak liberalismoa gainditzeko beste ideologia erabilgarri bat aurkituko du, aurrerapen eta askapen gehiago ahalbideratuko dituen mentalitate edo gizarte errealitateari hurbilketa berri eta zorrotzago bat, baina liberalismoa hemen dagoen bitartean, eta luzaro egongo dela dirudi, denon ardura da hobetzea eta inaustea.